

**DURANGO, 1997, XXXII. EUSKAL LIBURU ETA
DISKO AZOKA: EUSKALTZAINDIAREN
ARGITALPENEN AURKEZPENA**

Aurkezleak:

1. Hendrike Knörr, euskaltzaina, buruordea eta Onomastika batzordeburua.
2. Ricardo Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Argitalpen eragilea.

Aurkeztu diren argitalpenak:

1. Euskaltzaindiaren *Arauk* (2. karpeta).
 - A) 1. karpeta: 1994-1997: 1.zenbakitik 75.rainoko Arauk barnetzen ditu.
 - B) 2. karpeta: 1997-X.....: 76. zenbakitik aurrerakoak.
2. *Toponimia Medieval en el País Vasco* (letras B, C, ch, d, e, f, g.) Onomasticon Vasconiae, 16. Paratzailea: Angeles Libano.
3. *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Paratzailea: Pedro de Yrizar.
4. *Hautsi da kristala*. (Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia '1996.eko literatura saria': Toribio Alzaga antzerki-saria. Mattin Irigoien).
5. *Europako zein? batasuna* (Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia '1996.eko literatura saria': Mikel Zarate saiaera-saria. Julen Zabalo Bilbao).
6. *Federiko Kruwig-i omenaldia*: Iker 10 (Federiko Krutwg jaunari 50. urtemugako omenaldia: 1947-1997: Urrezko Ezteiak euskaltzain oso erara). Euskaltzaindia.
7. *Euskaltzaindiaren Argitalpenen Katalogoa (1992-1997)*. (Euskaltzaindiak kaleraturiko argitalpenen berri dakarren liburuxka).

* * *

Aurkeztu diren liburukien edukiaz:

1. Euskaltzaindiaren ARAUAK: karpetak: 1 eta 2. Lehen karpeta 1994.eko urrian hasi zen eta 1997.eko irailean bukatu, alegia hiru urte bitarteko ARAUGINTZA sartzen da lehen karpeta honetan. Berton frogatu ahal duzue lehen zenbakitik 75 artekoak dituzue.ARAUrik aipagarrienak honakook dituzue: aurrizkien erabilera: *bait-*, *ba-*; *-z gero*; sigular hurbila: *hau guztiau*; zenbakien deklinabidea: *hiru, lau...*; atzizkiena: *-zio*: administrazio, segizio, zibilizazio...; *bat* eta *batzuk*-en deklinabidea; *benetako, ohiko, betiko* ; *iritzi, arazi*; adizki alokutiboak edo hikako moldearena: *ninduen: nindian, nindinan...* dakusat: *zakusaat/ zekusaat, zakusanat/ zekusanat*; daroat: *zaroaat/ zeroaat... zaroanat/ zeroanat....*; diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea: *lau, gau...*; hiztegi batua: *a-iguzki/ eguzki...*; Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak;

Munduko geografiako zenbait izen: mendiak, ibaiak, itsasoak: *Alpeak...Danubio...Bizkaiko Golkoa...Ozeano Barea...*; orduak nola esan: *hamarrak hamar gutxi/ hamarrak hamar gutxiago...*; zenbakien deklinabidea: *hiru, lau...*; Mundu zabaleko uharte nagusiak: *Azoreak / Azore uharteak; Siberia Berriko uharteak;....*

2. Euskaltzaindiaren ARAUAK - 2: 1997.eko azarotik aurrera eta 76.zenbakitik gorakoak: *Izen klasikoak; Aditz Laguntzaile Batua.*

Oharra: agian, eta ez dakigu noiz, baina Euskaltzaindiak badauka asmoa ARAUAK sail hau CD-ROM euskarri informatikoan argitaratzeko.

* * *

3. *Toponimia Medieval en el País Vasco.* Paratzailea: Angeles Libano eta beste batzuk. Oraingoz A letratik G-raino argitaratua duzue. Liburuki bi hauetan Euskal Herriko toponimia nagusi eta txikia dela eta Erdi Aroko kartularioetan- XIII. mendera artekoak- azaltzen diren lekuizenak argitaratzen dira. Liburuki hau Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak- koedizioz- argitaratua da.

4. *Morfología del verbo auxiliar labortano.* Pedro Yrizar jaunak prestatua. Liburuki honetan Louis Luziano Bonapartek egindako ikerketetan eta zenbait lan argitaragabeetan oinarriturik aditz laguntzaileen aditz jokoak biltzen dira, alegia, aditz transitibo eta intransitiboetako indikatibo erakoak, lapurterazko euskalkiari dagozkionak. Eurok Sara, Ainhoa, Donibane-Lohizune eta Arrangoitzen erabiliak. Eta aldi berberean Elizondoren ere bai (berau Baztango azpieuskalkia izanik).

Dakizunez, Pedro Yrizarrek, Euskaltzaindiarekin argitaraturikoak, hurrengook dituzue, alegia: *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki); *Morfología del verbo auxiliar vizcaino* (2 liburuki); *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki); *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridinal*; *Morfología del verbo auxiliar roncalés*. Eta inprimategiratzeko, jadanik amaitua: *Morfología del verbo auxiliar bajo- navarro occidental*; eta prestatzen / eskuartean azken hiru liburuki. Beraz, bukatzean, bederatzi liburuki argitaratuak, liburuki bat amaitua eta beste hiru amaitzeak. Guztira: 13 liburuki.

Liburuki hau *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Pedro Yrizar jaunarena, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak- koedizioz- argitaratua da.

* * *

5. *Hautsi da kristala.* Egilea: Mattin Irigoien. Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia, 1996.eko 'Toribio Altzaga' antzerki-saria irabazi duen beharra. Bilbao Bizkaia Kutzak finantziaturiko argitalpena.

Nafarroa Beherea: 1512-1523.

Teofilo merkataria, saltzailea. Idazle publikoa, eskolatua.

Teofilo burges txikia dugu. Kanpo aldera itxura oneko gizona emoten du. Behar den bezalakoa. Ondo / ontsa pentsatzen du. Horretaz bera ohartzen da. Jakitatea badu. Eta honetaz baliatzen da.

Eta hor Teofiloren bigarren aldeak ikusten ditugu, alegia, zikoitza, harroa, 'urgulutsua', gaiztoa, putruina, ahula, faltsua, koïdarra, traidorea... Ofizioak ematen dion jakintza beraren bizikideak bere meneko, bere peko ezarteko baliatzen du. Hau da, beren ahalez goratzen ahal ez direnak, ingurukoak apalduz nahi lukete luzitu.

Gero, bada dekorazioa. Izura. Nafarroako Erresumaren azken hatsak. Ainiza Monjose. Amaiur. Noaineko bataila. Kastillako armada.

1512. urtean Monjose erretzen dute. 1523.urtean, Izura dute erretzen. Hau da de-sastrea!

Drama hutsa izan zitekeena, ironiaz tratatua dugu. Historiako ixtoria izan zitekeena, gaur egun bizitzan ditugun tripako minekin beztitu zaigu.

* * *

6. *Europako zein? batasuna.* Egilea: Julen Zabalo Bilbao. Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia. 1996.eko urtean 'Mikel Zarate' saiaera-saria irabazi duen beharra.

Liburuki honen solasgaia Europaren batasuna dugu, alegia, zenbaitentzat Europako Batasuna deritzon Erakundearen eskutik etorriko dena. Askok, ordea, zalantzan jarten dute bide honetatik, lorpen ekonomikoez gain, batasun politiko eta soziokulturala erdietsi ahal izatea, eta hauxe da, hain zuzen ere, jorratzen den aztergaia, eta are zehatzago, etorkizunean Europan gauza litezkeen egituraketa politikoa.

Hartarako, historian zehar ezagutu diren batasun proiektuen berri eman eta gero, proposatzen diren egituraketa posibleen balorazioa egiten da, ondoren batasuna gauza dadin beharrezkoa den europar nortasunaren eraikuntzaz hausnartzeko asmoz. Hiru osagai hauetatik abiatutik, Europak har lezakeen egituraketa politikorako sei aukera hautatu dira, denbora markoaren arabera sailkaturik, bakoitzari dagozkion baldintzapen desberdinen balorazioa eginez.

* * *

7. *Federiko Krutwig-i omenaldia.* Iker 10. Euskaltzain osoek eskainitako omenezko liburukia Federikok 50 urte bete baititu euskaltzain oso izendatu zutenetik hona, alegia: 1947.eko azaroaren 29an izendatua eta omenaldia, 1997.eko azaroaren 28an eskainia. Liburuki honetan literatura, gramatika, poesia eta onomastika gaiak azaltzen dira, besteak beste.

* * *

8. *Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa.* Duela bost urtetik hona berriztatu gabekoa eta egun, hemen, Durangoko Azoka honetan aurkeztua. Berton frogatu ahal duzueuz Euskaltzaindiak, orain arte, argitaraturikoaren berri emoten da.

Liburuxka hau Bilbao Bizkai Kutxak finantziatua da.

* * *

Katalogo honetan hurrengo atal edo eremuak aurkitu ahal dira, alegia:

1. EUSKERA agerkaria, Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala, 1920.etik gaur egun arte argitaratu izan dena. Eta honen barruan, azken urteotan hedatzen ari zaigun produktua, alegia, CD-ROM multimedia: 1920-1978 urteen bitartean agerturiko aldizkariak eskaneatu eta aurkibide bereziz hornitua.
2. ARAUAK 1 eta 2. Lehen karpeta oraintsu bukatua, alegia, 1994.eko urrian hasi eta 1997.eko irailean amaitua. Agian noizbait, hemengo testuok, Euskaltzaindiak CD-ROM multimedien argitaratuko ditu.
3. EUSKARAREN LEKUKOAK. 1979.ean hasi eta gaur egunerarte, 19 liburuki argitaratu ditu Euskaltzaindiak. Euskararen Lekukoak izan direnen testuak dira hauek.
4. IKER bilduma. 1981.urtean hasi eta egun arte 10 liburuki argitaratu dira. Azkena egunotan aurkeztua, Federico Krutwig Sagredo jaunari bere 50.urte Euskaltzaindian-euskaltzain oso- izendatu zutenaren oroigarri.
5. ONOMASTICON VASCONIAE. Sail hau 1986.urtean hasi zuen Euskaltzaindiak. Dagoeneko- toponimia eremu honetan- 15 liburuki argitaratu ditu. Sail honetan Euskal Herriko hainbat tokitako toponimia ikerketa bultzatzen da, eta ahal den neurrian, finantziaketa lortzean, argitaratzen ditu Euskaltzaindiak ikerketen ondorioak.
6. JAGON bilduma. Sail honetan liburuki bi kaleratu ditu Euskaltzaindiak, alegia, 1982.urtean Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketako bertsoak eta, gero, 1987.urtean, *Iparragirri* buruzko zenbait txosten edo Iparragirre pertsonari buruzko ikerketa-beharrak.
7. HIZTEGIAK ETA IZENDEGIAK: Eremu honetan 11 liburuki argitaratu ditu Euskaltzaindiak.
8. SOZIOLINGUISTIKA saila. Eremu honetan- 1977.etik gaur egun arte, bederlatzi liburuki argitaratu dira, besteak beste, *Euskararen liburu zuria*.
9. GRAMATIKA saila. Esparru honetan 15 liburuki ditu Euskaltzaindiak kaleratuak.
10. HITZ EGIN metodoa bilduma. Sail honetan, euskararen irakaskuntza eremuan, hogeita sei / 26 liburuki argitaratu ditu Euskal Akademiak.
11. LITERATURA KLASIKOA. Esparru honetan gure hizkuntzaren 'klasikoak' deritzan idazleen liburukiak berrargitaratu ditu Euskaltzaindiak, gehienbat. Dagoeneko, hamahiru / 13 liburuki argitaratu ditu Euskararen Erret Akademiak.
12. BATZUK. Bilduma edo sail honetan, esparru jakin gabeko argitalpenak zehazten ditu Euskaltzaindiak; besteak beste, Pedro Yrizar jaunak euskal aditz laguntzailerari buruzko liburukiak.

13. SARITURIKO BEHAR EDO LANAK. Eremu honetan, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren artean, urtero, 1979.etik gaur egun arte, antzerki, eleberrri, olerki eta gazte mailan idatziriko lan edo behar sarituak kaleratzen ditu. Dagoeneko hogeita hamahiru / 33 liburuki kaleratu ditu Euskal Erret Akademiak.

14. JOKIN ZAITEGIren itzulpenak. Sail honetan Jokinek buruturiko itzulpenak azaltzen zaizkigu, besteak beste, Greziako Platon idazlearen itzulpenak.

15. KATALOGOAK. Esparru honetan 'katalogoak' deritzan liburuki bi argitaratu ditu Euskaltzaindiak, alegia, L.L. Bonaparteren eskuizkribuak eta Bonaparteri buruzkoak.